

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA**  
**GIZARTE ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA**  
**2019ko DEIALDIA**

31/2019 EBAZPENA, otsailaren 1ekoa

23-05-2019

**INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK**

**EPAIMAHAIA**

**KALIFIKAZIOA**

**DEITURAK**

**IZENA** .....

**NANa/** .....

**ANTa** .....

***Erantzun zuzen bakoitzagatik 0,4 puntu gehituko dira. Erantzun oker bakoitzagatik 0,1 puntu kenduko dira. Bi markatuz gero galdera ez da puntuatuko.***

1.- Zer dira periferiko jakin bateko “driver”-ak?

- a) Merkatuan eros dezakegun zeinahi periferiko.
- b) Plaka nagusiko slot-etan jartzen diren txartelak, periferikoetara lotzen direnak.
- c) Ordenagailuari erantsten zaizkion periferikoak erabiltzeko jarraibideak.
- d) Periferikoaren fabrikatzailearen berariazko softwarea, gailu hori gure ekipamenduan erabiltzeko aukera emanen diguna:

2.- Zein tekla erabiltzen dira artxibo bat behin betiko ezabatzeko, zakarrontzira bidali gabe?

- a) Ctrl + Alt + Del
- b) Shift + Del + A
- c) Alt + Shift + Del
- d) Shift + Del

3.-Mezu elektronikoa bat igorri nahi bazaie hainbat hartzaile horietako bakoitzaren helbidea publiko egin gabe, beharrezkoa da...

- a) Igorpena banaka egitea hartzaile bakoitzari, ez baita aldi berean egiten ahal.
- b) Mezuaren gaian ondoko adierazpena gehitzea: PRIVATE.
- c) Hartzaileen helbideak CCO eremuan paratzea.
- d) Erantzunetako bakar bat ere ez da zuzena.

4.- Excel-eko serie aritmetiko baten ezaugarriak ondokoak dira:

- a) Zenbakien sekuentzia guztiz ausazkoa da.
- b) Zenbaki batetik beste batera pasatzeko, beti finkoa den zenbaki batengatik gehitzen edo kentzen da.
- c) Zenbaki batetik beste batera pasatzeko, beti finkoa den zenbaki batengatik biderkatzen edo zatikatzen da.
- d) b) zein c) balekoak dira.

5.- Zutabe berri bat txertatzeko, metodorik onena hau da:

- a) Taula> txertatu zutabea.
- b) Zutabe bat arkatzaren bidez zatitzen da.
- c) Zutabe bat gelaxkak konbinatuz zatitzen da.
- d) Taula bat sartzean, jada ezin da zutabe gehiago gehitu.

6.- Programa bat exekutatzen duzunean, programa hori, exekutatu bitartean, hemen egoten da:

- a) Kurtsorearen hondarrezko erlojuan
- b) RAM memorian
- c) Disko gogorreko swap arlo batean
- d) BIOSen

7.- Zer agertzen da saguaren eskuineko botoiarekin elementu baten gainean "klik" egiten dugunean?

- a) Fitxategi edo artxibo bat.
- b) Laster-menu (edo testuinguru-menu) bat.
- c) Elkarriketa-koadro bat.
- d) Ataza-barra bat.

8.- Testu tratamendurako Word programan, nola exekuta dezakegu "bilatu eta ordeztu" funtzioa?

- a) Ikusi menua, Bilatu eta Ordeztu erlaitzera jo, edo Control + L tekla konbinazioa sakatu.
- b) Editatu menua, Bilatu eta Ordeztu erlaitzera jo, edo Control + L tekla konbinazioa sakatu.
- c) Tresnak menua eta Ordeztura jo, edo Control + A tekla konbinazioa sakatu.
- d) Formatua menua, Bilatu eta Ordeztu erlaitzera jo, edo Control + Y tekla konbinazioa sakatu.

9.- Sei orriko testu bat dugu, eta bertan "herri" hitza hainbatetan agertzen da. Eta hitz horren ordeztu, agertzen den guztietan, "udalerri" paratu nahi dugu. Zer egin behar dugu? zer da azkarrena eta egokiena?

- a) Joan orriz orri "herri" hitza bilatuz, eta horren ordeztu "udalerri" teklatu.
- b) Itxi dokumentua eta berriz ere 6 orriak teklatu "herri" hitza beharrean "udalerri" paratuz.
- c) Ordeztu aukera erabili, eta "herri" agertzen den guztietan horren ordeztu paratu "udalerri", prozesu bakarrean.
- d) Paragrafoz paragrafo joan saguarekin, "herri" non dagoen begiratu eta horren ordeztu "udalerri" paratu.

10.- Internet Explorer-en, zein tekla edo tekla konbinazio erabiltzen da ikusten ari garen webgunea eguneratzeko?:

- a) Maiuskula-tekla + F5.
- b) F6
- c) F5
- d) Kontrol-tekla + F6.

11.- Mbyte bat osatzeko behar den bit kopurua honako hau da:

- a) 1024\*1024\*8
- b) 1024\*1024\*1024\*8
- c) 1024\*8
- d) Aurreko guztia faltsua da

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA**  
**GIZARTE ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA**  
**2019ko DEIALDIA**

*31/2019 EBAZPENA, otsailaren 1ekoa*

---

23-05-2019

**INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK**

12.- IPV4 helbideak honako hauek osaturik daude:

- a) 32 bit (4 byte).
- b) 48 bit (6 byte).
- c) 64 bit (8 byte).
- d) 128 bit (16 byte).

13.- Honela deitzen da Internetera konektatuta dagoen zeinahi ordenagailuk duen protokolo multzoa:

- a) TCP/IPa.
- b) NETPETa.
- c) ISOFIXa.
- d) Telekablea.

14.- Ondoko hauetatik, zein da bereziki artxiboen transferentziarako diseinatutako Interneteko protokoloa?

- a) SMTPa.
- b) P2Pa.
- c) FTPa.
- d) XTPa.

15.- Wi-fi izena honi dagokio:

- a) Erakunde komertziala, hari gabeko ekipamenduek estandarrak betetzen dituztela ziurtatzen duena.  
Hizkera arruntean erabiltzen da hari gabeko ekipamenduak identifikatzeko.
- b) Ezaguna den kotsola baterako joko.
- c) Sarbide publikoko sare lokalak, ekipamenduak hari baten bidez konektatzen direnak.
- d) Kafetegirako zuntz optikoaren nazioarteko estandarra.

16.- Jakinda IP helbideak lau zenbaki dezimal gisa irudikatzen direla, puntuen bidez bereizita, 0 eta 255 bitarteko balioekin, helbide hauetatik, zein EZ da IP baliozkoa?

- a) 173.16.1.22
- b) 195.74.13.6
- c) 545.23.126.932
- d) 10.47.6.11

17.- Hauetatik zein EZ da irudi digitalen artxibo-formatu bat?

- a) PCXa.
- b) JPGa
- c) GIFa.
- d) XMLa.

18.- Artxibo-formatu hauetatik, zein da ezagunena liburu elektronikoetarako?

- a) epub-a.
- b) pdn-a.
- c) jpeg-a.
- d) mp6-a.

19.- Zein da dokumentu-formaturik erabiliena Interneten inprimatzeko prest dagoen informazioa partekatzeko, egileak hala erabakita aldatu EZIN daitekeena?

- a) WPDa (Word Perfect Document).
- b) DOCa (Word dokumentua).
- c) PDFa (Portable Document Format).
- d) ODFa (Open Document Format).

20.- Nola du izena sareko trafikoa iragazteko sare sistemetan sartzen den hardware/software multzoak, nahi ez den trafikoa edo trafiko susmagarria iragazketa erregelen bidez blokeatzea helburua duenak?

- a) Webmaila.
- b) Splitter telefonikoa.
- c) Suebakia (firewall)
- d) Postontzia.

21.- Zer esan nahi dute TCP siglek?

- a) Transmission Control Protocol.
- e) Transmitting and Computing Protocol.
- f) Transmission Control Packet.
- g) Transmission Computer Privileges.

22.- Zer da URL helbidea?

- a) Web-orri bat dagoen zerbitzariari lotutako kodea.
- b) Sarera konektatuta dagoen beste ekipamendu batekin komunikazioa lortzeko behar den protokoloa.
- c) Interneteko web-orri baten identifikatzailea.
- d) Ekipamendu baten klabe-izena sare pribatu batean.

23.- Zer aipatzen dugu spyware diogunean?

- a) Mendebaldeko gobernu batzuetako zerbitzu sekretuek erabilitako jatorri militarra duen software-a.
- b) Ordenagailuan instalatuta, informazioa arakatu eta biltzen duen software-a, ondoren jabeak jakin gabe eta bere baimenik gabe beste ekipo batera bidaltzen dena.
- c) Ordenagailuan instalatuta, gurasoei beren seme-alaben Interneteko sarbidea kontrolatu eta kudeatzeko ahalbidetzen duen software-a.
- d) Ziberkafeetan eta telezentroetan erabiltzen den software-a, gehien bisitatzen diren orrialdeen azterketa ahalbidetzen duena estatistika helburuekin.

24.- Nola deitzen zaio beste sare batetik baimenik gabe sartzetik ekipamendua babesten duen software edo hardware sistemari?

- a) BitDefender-a.
- b) Firewall-a edo suebakia.
- c) Virus Barrier-a.
- d) IP Blocker-a edo IPak blokeatzeko gailua.

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA**  
**GIZARTE ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA**  
**2019ko DEIALDIA**

*31/2019 EBAZPENA, otsailaren 1ekoa*

---

23-05-2019

**INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK**

25.- 1 Kb-ko memoria unitatearen baliokidea da:

- a) 1024 Mb.
- b) 1024 Tb.
- c) 1024 Gb.
- d) 1024 byte.